



EUSKAL ADMINISTRAZIOEN KONTU EKONOMIKOAK

Definizioak

EUSKAL ADMINISTRAZIOEN KONTU EKONOMIKOAK:

DEFINIZIOAK

Aurrezkiaren eta kapital-transferentziaren zioz ondare garbiak izan dituen aldaketan kontua (III.1.1)

Kontu honen bidez, aurrezkiaren eta kapital-transferentzien zioz ondare garbiak izan dituen aldaketak atera daitezke; aldaketa horiek aurrezki garbiarenak dira, gehi kobratu beharreko kapital-transferentziak ken ordaindu beharreko kapital-transferentziak.

Azken erabilera propiorako produkzioa (P.12)

Erakunde-unitateak azken kontsumo propiorako edo kapital finkoaren eraketa gordinerako dituen ondasunak edo zerbitzuak dira.

Azken kontsumoko gastua (P.3)

Erkidegoko kideen banako nahiz taldeko beharrizanak edo gabeziak zuzenean betetzeko asmoz erabiltzen diren ondasunetan eta zerbitzuetan erakunde-unitate egoiliarrek egiten duten gastua da. Azken kontsumoko gastua lurralde ekonomikoan edo munduko beste tokiren batean egin daiteke.

Bi kontzeptu horien arteko ezberdintasuna, herri administrazioek edo EZIAGEek finantzatzen dituzten baina espezieko gizarte-transferentzia moduan etxeei hornitzen zaizkien ondasun eta zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko modua da.

Herri administrazioen azken kontsumoko gastuan bi kategoria daude, biak EZIAGEek dituztenen antzekoak:

- Herri administrazioek ekoizten dituzten ondasunen eta zerbitzuen balioa; hauek ez dira norberaren konturako kapital-eraketa ez salmentak;
- Merkatuko ekoizleek ekoizten dituzten eta herri administrazioek eskuratzen dituzten ondasun eta zerbitzuak; hauek aldatu gabe ematen zaizkie etxekoei, espezieko gizarte-transferentzia gisa. Hori dela eta, herri administrazioek saltzaileek etxekoei emandako ondasun eta zerbitzuak ordaintzen dituzte.

Baliabideak

Unitate edo sektore baten balio ekonomikoa areagotzen duten kontu korronteen eragiketak.

Balio erantsi gordina merkatu prezioetan

Aztertutako aldian produkzio-prozesuan sortu den balioa adierazten du. Bi balio hauen arteko aldea da: batetik, produkzioak fabrika-irteerako prezioan duen balioa; eta, bestetik, bitarteko inputak. Bestela esanda, eragiketa honen bidez atera daiteke: ustiaketako gaindikin gordina, gehi produkzioari lotutako zergak, ken ustiaketako diru-laguntzak.

Balio erantsi gordinak merkatuko prezioetan duen balioa neurtzeko, ekonomia osoaren balio erantsi gordinak fabrika-irteerako prezioetan duen balioari, produktuak zergapetzen dituen BEZa eta inportazioari lotutako zergak erantsi behar dizkiogu.

Banako merkatukoak ez diren ondasun eta zerbitzuen transferentziak (D.632)

Herri administrazioetako edo EZIAGEetako merkatukoak ez diren ekoizleek banako etxeei doan edo ekonomia aldetik prezio esanguratsuan emandako ondasunak eta zerbitzuak dira. EZIAGEen eta herri administrazioen banako kontsumoko gastuari dagozkie, baina etxeei gizarte-segurantzaren edo gizarte-laguntzaren erregimenean eman zaizkien espezieko gizarte-prestazioak kenduta (D.631).

Benetako azken kontsumoa (P.4)

Banako nahiz taldeko giza beharrianak zuzenean betetzeko asmoz erakunde-unitate egoiliarrek eskuratzen dituzten ondasun eta zerbitzuetan egindako azken kontsumoa da.

Herri administrazioetako unitateek hornitzen dituzten ondasun eta zerbitzuen kasuan, banako eta taldeko ondasun eta zerbitzuen arteko muga herri administrazioen eginkizunen sailkapenean (Cofog) ezarritakoaren arabera ezartzen da.

Hitzarmen bidez, herri administrazioek jarraian ematen den epigrafe bakoitzean egiten dituzten azken kontsumoko gastu guztiak kontsumoko banako zerbitzuetan egindako gastutzat hartuko dira, kategoria bakoitzeko administrazio orokor, antolamendu, ikerketa eta abarreko gastuak izan ezik. Hona hemen aipatu epigrafeak:

- 04 Hezkuntzako gaiak eta zerbitzuak
- 05 Osasuneko gaiak eta zerbitzuak
- 06 Gizarte-segurantzako eta gizarte-ekintzetako gaiak eta zerbitzuak
- 08.01 Kirol eta aisiako gaiak eta zerbitzuak
- 08.02 Kulturako gaiak eta zerbitzuak

Gainera, ondoren ematen diren azpiepigrafeetako gastua ere banakotzat hartuko da garrantzitsua denean:

- 07.11 Ostatuaren hornidura (zati batean)
- 07.31 Etxeko hondakinen bilketa (zati batean)
- 12.12. Garraiorako sistemen ustiapena (zati batean)

Herri administrazioen taldeko kontsumoko gastua, azken kontsumoan egindako gainerako gastuak dira. Batez ere honako hauek osatzen dute:

- Zerbitzu publiko orokorrak
- Segurtasuna eta defentsa
- Legea eta ordena mantentzea, legeria eta
- Ordenamendu juridikoa
- Osasun publikoa
- Ingurumenaren babesa

Beste kapital-transferentzia batzuk (D.99)

Inbertsiorako laguntzak eta kapitalaren gaineko zergak ez diren transferentziek osatzen dute. Transferentzia hauek ez dute errenta beren kabuz birbanatzen; aitzitik

bai banatzen dute berriz aurrezkoa edo ondarea ekonomiaren sektore nahiz azpisektoreen artean edo horien eta gainerako guztien artean.

Bitarteko kontsumoak (P2)

Bitarteko kontsumoak produkzio-prozesuan sargai (input) moduan kontsumitutako ondasunen eta zerbitzuen balioa dira, baina aktibo finkoak kenduta; horien kontsumoa kapital finkoaren kontsumo bezala erregistratzen da. Produkzio-prozesuan ondasunak eta zerbitzuak erabat alda edo kontsumi daitezke.

Diru-laguntzak (D.3)

Herri administrazioek edo Europar Batasuneko erakundeek ekoizle egoiliarrei egindako ordainketa arruntak dira, kontrapartidarik gabekoak. Ordainketa hauek ekoizleen produkzio mailetan, prezioetan edo produkzio-faktoreen ordainketan eragina izateko asmoz egiten dira.

Merkatukoak ez diren beste ekoizle batzuek produkzioarako beste diru-laguntza batzuk jaso ditzakete, baldin eta ordainketa horiek merkatuko ekoizleei eta merkatukoak ez diren ekoizleei aplikatu beharreko arau orokorren menpean badaude. Hitzarmen bidez ezarri da produktueterako diru-laguntzak ez direla merkatukoa ez den beste produkzioan erregistratzen (P.13.)

Europar Batasuneko erakundeek emandako diru-laguntzetan soilik sartzen dira produkzio-unitate egoiliarrek zuzenean egindako transferentziak.

Diru-laguntzak mota bikoak izan daitezke:

- 1) Produktueterako diru-laguntzak (D.31.):
 - a) Inportazioetarako diru-laguntzak (D.311.)
 - b) Produktueterako beste diru-laguntza batzuk (D.319)
- 2) Produkzioarako beste diru-laguntza batzuk (D.39.)

Egozitako gizarte-kotizazioak (D.612)

Enplegatzaileek zuzenean egindako gizarte-prestazioen kontrapartida dira (soldatukoek ordaindu beharreko gizarte-kotizazioak kenduta, hala dagokionean). Prestazio horiek enplegatzaileek ordaintzen dizkiete zuzenean (hau da, ez daude enplegatzaileek ordaindu beharreko kotizazio efektiboak lotuta) euren soldatukoak, soldatuko ohiei eta beste eskubidedun batzuei. D.122 fluxuari buruzkoak dira.

Ekoiztu ez diren eta finantzazkoak ez diren aktiboen eskurapenak ken lagapenak (K.2)

Ekoiztu ez diren eta finantzazkoak ez diren aktiboak dira lurra, ondasun eta zerbitzuen produkzioan erabil daitezkeen ekoiztu gabeko beste aktibo material batzuk eta ekoiztu diren aktibo ez-materialak.

Enplegatzaileen zuzeneko gizarte-prestazioak (D.623)

Erreserbak eratuta ez dituzten gizarte-aseguruen sistemak kudeatzen dituzten enplegatzaileek euren soldatukoak, horien kargura dauden pertsonen edo horien alargunei (eskudirutan edo espezetan) ordaindu beharreko prestazioak dira. Horien artean daude, normalean:

- Gaixotasuna, istripua, amatasuna, etab. dela medio langilea lanera joan ez den aldietan ordaindu zaizkion ohiko soldatak edo soldata murriztuak.
- Famili osagarriak, ikasteko laguntzak eta soldatakoaren kargura dauden beste pertsona batzuei lotutako beste laguntza batzuk.
- Soldatako ohiei edo eskubidedunei ordaindutako erretiro-pentsioak edo biziraupen-pentsioak eta soldatakoiei edo eskubidedunei irazpen, baliaezintasun, istripuaren ondoriozko heriotza eta abarren zioz ordaindutako kalte-ordainak (prestazio horiek hitzarmen kolektiboei lotuta daudenean).
- Laneko medikuntzari lotuta ez dauden osasun-zerbitzu orokorrak.
- Susperraldi-etxeak eta adinekoen egoitzak.

Erabilerak

Unitate edo ondasun baten balio ekonomikoa murrizten duten kontu korronteen eragiketak.

Errenta baliagarri eta doituaren erabilpen-kontua (II.4.2)

Errenta baliagarri eta doituaren erabilpen-kontuak benetako azken kontsumoaren kontzeptua hartzen du, hau da, etxeek azken kontsumorako benetan dituzten ondasun eta zerbitzuen balioa, nahiz eta herri administrazioek edo etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeek finantzatu.

Ondorioz, herri administrazioen benetako azken kontsumoa, azken kontsumo kolektiboa da. Etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeen azken kontsumoko gastua banakoa denez, horren azken kontsumoa baliogabea izango da.

Aurrezkia, errentaren erabilpen-kontuaren bi bertsioen kontabilitateko saldoa da. Sektore guztietan balio bera izango du, nahiz eta hori lortzeko errenta baliagarriaren azken kontsumoko gastua kendu edo errenta baliagarri eta doituaren benetako azken kontsumoa kendu behar izan.

Aurrezkia, eragiketa arrunten bidez lortu den eta metatze-prozesuarekiko konexio bezala balio duen zenbatekoa (positiboa edo negatiboa) da. Aurrezkia positiboa bada, gastatu ez den errenta aktiboak eskuratzeko edo pasiboak gutxitzeko erabiliko da. Aurrezkia negatiboa bada, ordea, aktibo jakin batzuk likidatu egingo dira edo pasibo jakin batzuk gehituko dira..

Errenta baliagarriaren erabilpen-kontua (II.4.1)

Errenta baliagarriaren erabilpen-kontuak ukitutako sektoreek finantzatu duten azken kontsumoko gastuaren kontzeptua hartzen du: etxeak, herri administrazioak eta etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Errenta baliagarriaren erabilpen-kontuaren saldoa aurrezkia da.

Errenta primarioen esleipen-kontua (II.1.2)

Errenta primarioen esleipen-kontuak unitate egoiliarrek eta erakundeko sektoreak hartzen ditu, errenta primarioaren hartzaileak direlako eta ez errenta primario hori sortzen duten ekoizleak.

"Errenta primarioa" unitate egoiliarrek produkzio-prozesuan izan duten zuzeneko partaidetzaren arabera jasotzen duten errenta da, baita finantza-aktibo baten edo

ekoiztu ez den aktibo material baten jabeak beste erakunde-unitate baten eskura jartzearren kobratu behar duen errenta ere.

Errentaren bigarren mailako banaketa-kontua (II.2)

Errentaren bigarren mailako banaketa-kontuak erakusten du nola esleitzen den erakundeko sektore baten errenta primarioen saldoa birbanaketaren bidez, hau da, errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zerga arrunten bidez, gizarte-kotizazio eta -prestazioen bidez (espezioko gizarte-transferentziak kenduta) eta gainerako transferentzia arrunten bidez.

Kontuaren saldoa errenta baliagarria da; eragiketa arruntak islatzen ditu eta berariaz baztertzen ditu kapital-transferentziak, jabetzaren benetako irabaziak eta galerak eta hondamendi naturalak bezalako gertaeren ondorioak.

Errentaren erabilpen-kontua (II.4)

Azken kontsumoa duten erakundeko sektoreen kasuan errentaren erabilpen-kontuak erakusten du errenta baliagarria (edo errenta baliagarri eta doitua) azken kontsumoaren gastuaren (edo benetako azken kontsumoaren) eta aurrezkiaren artean banatzen dela.

Sisteman, soilik dute azken kontsumoa herri administrazioek, etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta etxeek.

Errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zerga arruntak (D.5)

Herri administrazioek eta gainerako guztiek erakunde-unitateen errentaren eta ondarearen gainean aldizka biltzen dituzten kontrapartidarik gabeko nahitaezko ordainketa guztiak dira, baita errentaren edo ondarearen gainean eskatzen ez diren aldizkako zerga batzuk ere.

Errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zerga arruntak bi motatakoak dira:

- Errentaren gaineko zergak (D.51),
- beste zerga arrunt batzuk (D.59).

Erreserbak eratuta dituzten sistema pribatuen gizarte-prestazioak (D.622)

Aseguru enpresek edo erreserbak eratuta dituzten gizarte-aseguru pribatuen sistemak ematen dituzten beste erakunde-unitate batzuek etxeei (eskudirutan edo espezetan) ordaindu beharreko prestazioak dira.

Espezioko errentaren birbanaketa-kontua (II.3)

Espezioko errentaren birbanaketa-kontuak etxeen errentari buruzko ikuspegi zabalagoa ematen du etxe horiek doan jasotzen dituzten banako ondasunen eta zerbitzuen gaineko erabileraren fluxuak sartzan dituelako, hau da, espezioko gizarte-prestazioak eta banako merkatukoak ez diren ondasun eta zerbitzuen transferentziak. Fluxuen kategoria bi horiek espezioko gizarte-transferentzien kontzeptuaren barruan sartzan dira. Horrela, denboran alderaketak errazago egin daitezke baldintza ekonomikoetan eta sozialetan ezberdintasunak edo aldaketak daudenean eta herri administrazioek errentaren birbanaketan duten zereginaren gaineko azterketa osatu egiten da.

Espezieko gizarte-transferentziak espezieko errentaren birbanaketa-kontuko baliabideetan erregistratzen dira etheen kasuan eta, etheen zerbitzura dauden herri administrazioen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen kasuan, kontu horren erabileretan.

Espezieko errentaren birbanaketa-kontuaren saldoa baliagarri dagoen errenta doitua da.

Espezieko gizarte-prestazioak (D.631)

Espezieko gizarte-transferentziak egiten dira etheen zama arintzeko, hau da, gizarte-arrisku eta -beharrizan jakin batzuk estaltzean etxeek duten finantza-zama arintzeko. Prestazio hauek bitan banatzen dira: batetik, etxe onuradunek ondasunak eta zerbitzuak euren kabuz eskuratu ondoren horiek gastuak itzultzeko ematen direnak, eta bestetik, zuzenean onuradunei ematen zaizkienak. Bigarren kasu horretan, gainera, herri administrazioek edo EZIAGEek osorik edo zati batean produzitu edo eskuratzen dituzte euren ekoizleek onuradunei zuzenean ematen dizkieten ondasunak eta zerbitzuak.

Espezieko gizarte-transferentziak (D.63)

Herri administrazioetako unitateek eta EZIAGEek espezieko transferentzi gisa etxeei emandako banako ondasun eta zerbitzuak dira; horiek merkatuan eskuratu ahal izan dira edo herri administrazioetako unitateen eta EZIAGEen merkatukoa ez den produktiotik eratorritakoa izan daiteke. Zergen, gizarte-segurantzako kotizazioen eta herri administrazioen bestelako sarreraren bidez finantza daitezke eta, EZIAGEen kasuan, dohaintzen edo jabetzaren errenten bidez.

EZIAGEek sortutako merkatukoak ez diren zerbitzu batzuek zerbitzu kolektiboan ezaugarri batzuk dituzte eta EZIAGEek sortutako merkatukoak ez diren zerbitzu guztiak (normalean eta gauzak errazteko) banakoen zerbitzutzat jotzen dira. Etxeei doan edo ekonomia aldetik esanguratsuak diren prezioetan ematen zaizkien zerbitzuak banakakoak direla esaten da, erkidego osoaren edo horren zati handi bati ematen zaizkion zerbitzu kolektiboetatik bereizteko. Banako zerbitzu gehienak irakaskuntza eta osasun arloetakoak dira, baina sarri beste zerbitzu batzuk ere ematen dira, hala nola: ostatua ematekoak, kultur arlokoak eta aisiakoak.

"Espezieko gizarte-transferentziak" (D.63) izeneko atalean espezieko gizarte-prestazioak eta banako merkatukoak ez diren ondasun eta zerbitzuen transferentziak sartzen dira.

Espezieko gizarte-transferentziak ez diren gizarte-prestazioak (D.62)

Horien artean:

- Gizarte-segurantzako prestazioak, eskudirutan (D.621)
- Erreserbak eratuta dituzten sistema pribatuen gizarte-prestazioak (D.622)
- Enplegatzaileen zuzeneko gizarte-prestazioak (D.623)
- Gizarte-laguntzako prestazioak, eskudirutan (D.624)

Finantzazkoak ez diren aktiboen eskurapen-kontua (III.1.2)

Kontu honetan eskurapenak ken finantzazkoak ez diren aktiboen lagapenak erregistratzen dira; horien bidez, aurrezkiaren eta kapital-transferentzien ziozko ondare

garbiaren aldaketaren kontzeptutik finantzatzeko ahalmenaren edo beharrianaren kontzeptura igaro daiteke.

Gizarte-kotizazio efektiboak (D.611)

Horien artean:

- **Enplegatzaileek ordaindu beharreko gizarte-kotizazio efektiboak (D.6111)** (kotizazio hauek D.121 fluxuari buruzkoak dira) Enplegatzaileek ordaindu beharreko gizarte-kotizazio efektiboak, horiek gizarte-segurantzako administrazioei eta gizarte-aseguruen sistemak ematen dituzten aseguru eta pentsio-funts autonomo edo ez autonomoko enpresei egiten dizkieten ordainketak dira, eta soldatakoei gizarte-prestazioen hornidura bermatzeko egiten dira.
- **Soldatakoek ordaindu beharreko gizarte-kotizazioak (D.6112)** Soldatakoek Gizarte Segurantzari eta sistema pribatuei (erreserbak eratuta eduki zein ez) ordaintzen dizkieten gizarte-kotizazioak dira.
- **Langile autonomoen eta langabetuen gizarte-kotizazioak (D.6113)** Soldatakoak ez diren pertsonak, hau da, langile autonomoak (enplegatzaileak edo norberaren konturako langileak) eta langabetuek euren onurarako ordaintzen dituzten gizarte-kotizazioak dira.

Gizarte-laguntzako prestazioak, eskudirutan (D.624)

Herri administrazioetako unitateek edo EZIAGEek etxeei ordaindutako prestazioak dira, gizarte-aseguruen prestazioetako beharrian berberei arreta emateko; baina prestazio horiek ez dira sartzen gizarte-kotizazioak eta gizarte-aseguruen prestazioak dituen sistema batean. Prestazio horien artean ez dira sartzen, gainera, normalean gizarte-aseguruen sistemak estaltzen ez dituzten gertaera edo inguruabarren ondorioz ordaindu diren transferentzia arruntak (adibidez, hondamendi naturalen ondorioz egindako transferentziak, beste transferentzia arrunt batzuen edo beste kapital-transferentzia batzuen moduan erregistratzen direnak).

Gizarte-segurantzako prestazioak, eskudirutan (D.621)

Gizarte-segurantzako administrazioek etxeei ordaindu beharreko prestazioak dira eta gizarte-segurantzako sistemen esparruan ematen dira

Herri administrazioak (S.13)

"Herri administrazioen" sektorean (S.13) merkatukoak ez diren beste ekoizle batzuen erakunde-unitate guztiak sartzen dira; horien produkzioa norbanakoaren edo talde baten kontsumorako da eta, batez ere, beste sektore batzuetakoak diren edota errenta eta aberastasun nazionala birbanatzeko eragiketarako egiten dituzten unitateek egindako nahitaezko ordainketen bidez finantzatzen dira".

Hona hemen S.13 sektorean sartzen diren erakunde-unitateak:

- Herri administrazioen erakundeak (ekoizle publikoak izan ezik -sozietate publiko moduan antolatutakoak, nortasun juridikodunak edo ia-sozietateak direnak-"finantza-erakundeak" edo "finantzazkoak ez diren sozietateak" sektoreetan sailkatuta badaude). Hauek, jarduera batzuk administratu eta finantzatzen dituzte, batez ere merkatukoak ez diren ondasunak eta zerbitzuak hornitzen dizkie jendeari.

- Nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, merkatukoak ez diren beste ekoizle batzuk dira eta batez ere herri administrazioek kontrolatzen eta finantzatzen dituzte.
- Pentsio-funts autonomoak.

"Herri administrazioaren" sektoreak lau azpisektore ditu:

- Administrazio zentrala (S.1311)
- Autonomia-erkidegoak (S.1312)
- Tokiko korporazioak (S.1313)
- Gizarte-segurantzako administrazioak (S.1314)

Herri administrazioen arteko transferentzia arruntak (D.73)

Herri administrazioen azpisektore ezberdinen arteko (administrazio zentrala, autonomia-erkidegoak, tokiko korporazioak eta gizarte-segurantzako administrazioak) transferentziak dira; alabaina, ez dira transferentzia horien artean sartzen zergak, diru-laguntzak, inbertsiorako laguntzak eta beste kapital-transferentziak.

Inbertsiorako laguntzak (D.92)

Herri administrazioek edo beste guztiek beste erakunde-unitate egoiliar edo ez-egoiliar batzuei eskudirutan edo espezietan egindako kapital-transferentziak dira, aktibo finkoak eskuratzeko kostuak osorik edo zati batean finantzatzeko.

Izakinen aldakuntza (P52)

Izakinetan izan diren sarreren balioaren arabera neurtzen da, betiere irteeren balioa eta izakinetan izan diren ondasunen edozein galera arrunten balioa kenduta.

Jabetzaren errentak (D.4)

Finantza-aktibo baten edo ekoiztu ez den aktibo material baten jabeak jasotzen dituen errentak dira, funtsak emateagatik edo ekoiztu ez den aktibo materiala beste erakunde-unitate baten eskura jartzeagatik.

Kapital finkoaren eraketa gordina (P51)

Ekoizle egoiliarrek aldi jakin batean egindako aktibo finkoen eskuraketak ken emateak (lagapenak) dira, baina horiei gehitu egiten zaie produkzio-unitateen edo erakunde-unitateen produkzio-jardueratik eratorrita ekoiztu ez diren aktiboen balioaren gehikuntza batzuk. Aktibo finkoak materialak edo ez-materialak izan daitezke eta produkzio-prozesuen bidez lortzen dira. Behin eta berriro edo etengabe erabiltzen dira, gainera, beste produkzio-prozesu batzuetan urtebetean baino aldi luzeagoan.

Kapital finkoaren kontsumoa (K1)

Aztertutako denboraldian kontsumitu diren aktibo finkoen kopurua da, hau da, erabilera normalaren eta aurreikusi daitekeen zaharkitzearen ondoriozkoa; istripu-kalte asegurarrien ondoriozko aktibo finkoak galtzeagatik hornidura bat ere sartzen da.

Kapitalaren gaineko zergak (D.91)

Tarte irregularretan eta gutxitan ematen direnetan zergapetzen dituzte erakunde-unitateen aktiboen balioa (edo ondare garbia) edo oinordetza, inter vivos dohaintza

edo bestelako transferentzien ondorioz erakunde-unitateen artean transferitu diren aktiboen balioa.

Kapital-transferentziak (D.9)

Transferentzia arrunten kasuan ez bezala, kapital-transferentzietan eragiketan parte hartzen duten alderdietako gutxienez batek aktibo bat edo batzuk eskuratu edo lagatzen ditu. Kapital-transferentziak eskudirutan edo espezetan egin daitezke; hori gorabehera, eragiketan parte hartzen duen alderdi baten edo bien balantzeetako finantza-aktiboen edo finantzazkoak ez diren aktiboen aldaketa baliokidea izango dira.

Merkatuko produkzioa (P.11)

Merkatuan beste era batera saltzen edo lagatzen dena, edo xede horietarako dena. Hitzarmen bidez ezarri da etxeen jabetzako sozietate bezala eratuta ez dauden enpresen produkzioa beste erakunde-unitate batzuei saltzen zaienean salmenta hori ekonomia aldetik esanguratsuak diren prezioetan egingo dela; orduan, merkatuko produkzioa izango da. Beste erakunde-unitate batzuen produkzioa ekonomia aldetik esanguratsuak diren prezioetan baino ez da salduko, salmentek produkzioaren kontuen %50 estaltzen badute gutxienez.

Merkatukoa ez den beste produkzio bat (P.13)

Beste unitate batzuei doan edo ekonomia aldetik esanguratsuak diren prezioetan hornitzen zaien produkzioa da.

Merkatukoak ez diren beste ekoizleak dira tokiko Jarduera Ekonomikoaren Unitateak edo produkzio gehiena doan edo ekonomia aldetik esanguratsuak diren prezioetan hornitzen duten erakunde-unitateak.

Produkzioaren kostuen %50ean oinarritutako irizpidea erabiliko da:

- Salmentek gutxienez produkzioaren kostuen %50 estaltzen badute, erakunde-unitatea merkatuko ekoizlea izango da eta "finantzazkoak ez diren sozietateak" edo "finantza-erakundeak" izeneko sektoreetan sailkatuko da;
- Salmentek produkzioaren kostuen %50 baino gutxiago estaltzen badute, erakunde-unitatea merkatukoa ez den beste ekoizle bat izango da eta "EZIAGE" (etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak) izeneko sektorean sailkatuko da. Alabaina, batez ere herri administrazioek kontrolatzen eta finantzatzen dituzten merkatukoak ez diren beste IAGEak (irabazi-asmorik gabeko erakundeak) "herri administrazioak" sektorean sailkatzen dira.

Nazioarteko lankidetzaren arrunta (D.74)

Nazioko herri administrazioen eta munduko gainerako herri administrazioen edo nazioarteko erakundeen artean, eskudirutan edo espezetan, egindako transferentzia guztiak dira; baina ez dira multzo honetan sartzen inbertsiorako laguntzak eta beste kapital-transferentziak.

Produktuetarako diru-laguntzak (D.31.)

Produktuetarako diru-laguntzak (D.31), ekoiztu edo inportatu den ondasun edo zerbitzu baten unitate bakoitzeko ordaindu beharreko diru-laguntzak dira. Diru-laguntzak ondasun edo zerbitzu baten unitate bakoitzeko diru-kopuru jakin batekoak izan daitezke, edo ad-valorem kalkula daitezke unitateko prezioaren ehuneko zehatz

batekin. Diru-laguntza beste modu honetara ere kalkula daiteke: helburu-prezioa den prezio zehatzaren eta erosleak benetan ordaindu duen merkatu-prezioaren arteko diferentzia. Normalean, produktu baterako diru-laguntza bat eskatu ahal izango da ekoiztu, saldu edo inportatu egiten bada. Hitzarmen bidez ezarri da produktuek soilik izan ditzaketela diru-laguntzak merkatuko produktuak (P.11) direnean edo azken erabilera propiorako produkzioa (P.12.) denean.

Produkzioa (P1)

Produkzioztat hartzen dira kontabilitate-aldian sortutako produktu guztiak.

Hiru produkzio-mota daude: merkatuko produkzioa (P11), azken erabilera propiorako produkzioa (P.12) eta merkatukoa ez den beste produkzioa (P.13).

Ondasunak eta zerbitzuak produkzio-prozesuan sortzen direnean erregistratu eta baloratuko da produkzioa.

Produkzio guztia oinarritzko prezioetan baloratu behar da, baina merkatukoa ez den produkzioa baloratzeko hitzarmen zehatzak erabiliko dira.

Produkzioaren eta inportazioen gaineko zergak (D2)

Kontrapartidarik ez duten nahitaezko ordainketak dira. Herri administrazioek edo Europar Batasuneko erakundeek, eskudirutan edo espezieetan, biltzen dituzte ondasun eta zerbitzuen produkzioari eta inportazioari, laneskua erabiltzeari, jabetzari edo lurraren, eraikinen eta produkzioko beste aktibo batzuen erabilerari zergak ezartzean. Onurarik jasotzen ez bada ere zerga horiek ordaindu egin behar dira.

Bi mota daude:

- 1) produktuen gaineko zergak (D.21)
 - a) balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) antzeko zergak (D.21)
 - b) inportazioen eskubideen gaineko zergak, BEZik gabe (D.212)
 - inportazio eskubideak (D.2121)
 - inportazioen gaineko zergak, BEZik gabe, eta inportazio eskubideak (D.2122)
 - c) produktuek gaineko zergak, BEZik gabe, eta inportazioen gaineko zergak (D.214)
- 2) produkzioaren gaineko beste zerga batzuk (D.29)

Produkzioaren gaineko beste zerga batzuk (D29)

Enpresei produkzioan parte hartzean ezartzen zaizkien zerga guztiak dira; berdin da zein den ekoiztu edo saldu diren ondasun nahiz zerbitzuen kopurua edo balioa.

Produkzio-kontua (C.1.)

Produkzio-kontuak (C.1) produkzio-prozesuaren beraren eragiketak ematen ditu. Erakundeko sektoreetarako eta jarduera-adarretarako egiten da. Produkzioa du baliabide gisa eta bitarteko kontsumoak erabiltzen ditu.

Produkzio-kontua sistemako saldo garrantzitsuenetako bat kalkulatzeko erabil daiteke, baita produkzio-jarduera bat egiten duen unitateak erantsitako edo sortutako balioa eta funtsezko agregatu bat ere: barne-produktu gordina.

Balio erantsia ekonomia aldetik esanguratsua da, bai erakundeko sektoreetarako bai jarduera-adarretarako.

Ekonomia osorako, produkzio-kontuak bere baliabideen artean ondasun eta zerbitzuen produkzioaz gainera produktuen gaineko zergak (diru-laguntzak kenduta) hartzen ditu; horrela, barne-produktu gordina (merkatuko prezioetan) kontabilitateko saldo moduan atera daiteke.

Produkziorako beste diru-laguntza batzuk (D.39.)

Produkziorako beste diru-laguntza batzuen (D39.) barruan sartzen dira produkzio-unitate egoiliarrek produkzioan izan duten partaidetzaren ondorioz jaso ditzaketen diru-laguntzak, baina produktuetarako diru-laguntzak izan ezik.

Merkatukoa ez den beste produkzioari dagokionez, merkatukoak ez diren beste ekoizleek produkziorako beste diru-laguntza batzuk jaso ditzakete baldin eta herri administrazioek egindako ordainketak merkatuko ekoizleei eta merkatukoak ez diren ekoizleei aplikatu beharreko arau orokorren menpean badaude.

Soldatakoen ordainketa (D1)

Enplegatzaileek euren soldatapekoei, hauek kontabilitate-aldian egin duten lanaren ordain modura, eskudiruz edo espezetan ordaindu beharreko ordainsari osoa da. Bi atal ditu: soldatak (D.11) eta enplegatzailearen kontura ordaintzen diren gizarte-kotizazioak (D12).

Ustiapen-kontua (II.1.1)

Ustiapen-kontuan, lehen mailako errenten iturria (ez xedea) osatzen duten sektoreak, azpisektoreak eta jarduera-adarrak sartzen dira. Kontu honek aztertzen du zein neurritan bete ditzakeen balio erantsiak soldatakoen ordainketa eta beste zergak, produkziorako diru-laguntzak alde batera utzita. Halaber, produkzioko jardueren soberakina (edo defizita) den ustiapen-soberakina neurtzen du, produkzio-unitatearen korrituak, lurraren errentak edo zenbatekoak aintzat hartu baino lehen. Horretarako, produkzio-unitateak ondokoak egingo ditu:

- 1. maileguan edo alokatuta dituen ekoiztu gabeko finantza-aktiboei edo aktibo materialei dagokienez ordaindu behar dituenak.
- 2. ekoiztu ez badira ere jabe den finantza-aktiboei edo aktibo materialei dagokienez kobratu behar dituenak.

Zenbait transferentzia arrunt (D.75)

Hurrengo izenburuak dituzte:

- EZIAGEei egindako transferentzia arruntak
- Etxeen arteko transferentzia arruntak; hau da, etxe egoiliarrek beste etxe egoiliar edo ez-egoiliar batzuei eskudirutan edo espezetan egiten dizkien transferentzia guztiak edo haiengandik jasotzen dituztenak. Hain zuzen, multzo honetan sartzen dira emigratzaileek edo atzerrian bizi diren (edo urtebete edo gehiago atzerrian lan egin duten) langileek euren jaioterriko herrialdean bizi diren senideei bidaltzen

dizkien funtsak eta gurasoek beste toki batzuetan bizi zaizkien seme-alabei bidaltzen dizkien funtsak.

- Isunak eta zehapenak
- Loteriak eta zorizko jokoak
- Ordainketa konpentsatzaileak. Pertsoneri edo jabetzei egindako lesio nahiz kalteen konpentsazio gisa erakunde-unitate batzuek beste batzuei ordaintzen dizkien transferentzia arruntak dira; baina ez dira transferentzia horien barruan sartzen bizitza-asegurua ez denaren kalte-ordainak.
- NPGean oinarritutako laugarren baliabide propioa.
- Beste transferentzia arrunt batzuk

Iturria: EUSTAT